

# SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.

## **MUNDU TXIKIA AZTERTZEN**

---

### **JARDUERA MOTA**

Jarduera gidatua.

### **LEKUA**

Gela eta kanpo-espazioa.



## EDUKIA

### Animalia talde orokorra

#### Ornodunak: Bizkarrezurra dute.


-**Arrainak:** Fusiformeak dira, hegatsak dituzte, azala ezkatez beteta dute eta zakatzen bidez arnasten dute. Gehienak haragijaleak dira eta obiparoak edota barne-ernalketa egiten dute.

-**Anfibioak:** Lau hanka dituzte, batzuk pozoitsuak dira, metamorfosia egiten dute eta obiparoak dira, gehienek birika eta larruazalaren bidez arnasten dute eta azala hezea, mehea eta babesik gabekoa dute.

-**Narrastiak:** Lau hanka dituzte, sugeak ez ezik. Gorputza ezkata gogorrez estalia dute, batzuk azala mudatzen dute, batzuk oskola dute (dortoka), biriken bidez arnasten dute, batzuk pozoiarekin lotutako letaginak dituzte, gehienak haragijaleak dira eta orokorrean barne ernalketa egiten dute, obiparoak dira baina ez dituzte arrautzak txitatzen.

-**Hegaztiak:** Gorputz aerodinamikoa dute (lepoak burua eta enborra lotu), hegalak eta hankak dituzte (atzean bi hankak--> 4 hatz, eta aurrean hegalak eta lumak). Hezurak hutsak dira, mokoa adakizkoa eta hortzik ez. Homeotermoak (odol berokoak) dira, biriken bidez arnasten dute eta obiparoak dira.

-**Ugaztunak:** Amek beren umeak haien esnez elikatzen dituzte, odol berokoak dira, hortzak izaten dituzte eta biriken bidez arnasten dute. Normalean ile asko izaten dute eta gehienak bibiparoak dira. Lehorrean eta uretan bizi daitezke eta batzuek hegan egiten dute.



- **Ornogabeak:** Bizkarrezurrik ez duten animaliak dira.



## Txupopteroa

Txupopteroa, intsektu eta ornogabeak harrapatu eta minik eman gabe aztertzea ahalbidetzen digun gailua da, Kutxa Ekogunean sortua.

## ZER LANTZEN DA

- Naturaren ezagutza: naturan dauden elementuei erreparatu, kasu honetan, intsektuak eta ornogabeak, zer diren, nolakoak diren...
- Ingurumenaren babes eta hobekuntzan aktiboki parte hartzera bultzatuko duten jarrera eta baloreak eraiki.
- Behaketa eta datu bilketa.
- Pentsamendua, hausnarketa eta gauzen azterketa.
- Laguntza eta elkarlan jarrera ikaskideekin.
- Elkarlana eta laguntza eguneroko lanak egiteko eta besteei laguntzeko.

## MATERIALA

- Plastikozko potoa
- Plastikozko potoaren ahoaren diametro bereko kortxozko tapoia
- 2 gomazko tutu malgu
- Metalezko sarea edo laranjen sare berrerabilia.
- Alanbrea
- Zulagailu edo taladroa
- Film papera
- Guraizeak

## DESKRIBAPENA

Gure hanken azpian, sekula irudikatuko ez genuke mundu bat dago intsektu eta ornogabez beteta, esploratuko al dugu?

Lehenik txupopteroa eraikiko dugu eta ostean gida batekin gure inguruko mundu txikiaz jabetuko gara.

## Nola egin

- Kortxozko tapoiari, gomazko tutuen diametro bereko bi zulo egin.
- Tutu baten beheko aldean, sarea ipini alanbreaz lotuta, sare hau ornogabea gure ahora iritsi dadin ekidingo du.
- Behin tutuak ipini ostean, tapoia potoan ipiniko dugu eta film paperaz ongi bildu guztia, hermetikoa izan behar du.
- Sarea duen tutua xurgatzekoa izango da eta beste tutua ornogabea harrapatuko duena.

## Erosi nahi bada

Mota honetako gailu asko daude merkatuan, Kutxa Ekoguneak ondokoa erabiltzen du.

[https://www.jugarijugar.com/es/exploradores-y-juegos-en-la-naturaleza/1532-bote-para-cazar-insectos.html?search\\_query=insectos&results=17](https://www.jugarijugar.com/es/exploradores-y-juegos-en-la-naturaleza/1532-bote-para-cazar-insectos.html?search_query=insectos&results=17)



## Inguruko mundu txikia

Behin txupopteroa gure eskuetan dugula, inguruko mundu txikia aztertu egingo dugu, horretarako intsektu (edo ornogabe) bat harrapatzean hiru galderari erantzungo diogu: zer, nolakoa eta non.

- Zer: zein intsektu mota den, espeziea... ikasleak sakondu nahi duenaren (edo ahal duenaren) arabera. Askotan ornogabeetan ez da erraza espeziea definitzea, izen arruntarekin balio du.
- Nolakoa: marrazki, irudi edo argazki bat egin, gerora kontsultatzeko balioko digu.
- Non: mapa batean topatutako lekua egin ahal da, honela ikastetxe inguruko mapa intsektario bat egin ahal da. Horretaz gain bestelako informazio baliagarria ipini daiteke (egur azpian, belarretan, lurpean, zuhaitz enborretan...).

## Eta zalantzarik izanez gero

Kutxa Ekogunera idatzi ([hezkontza@ekogunea.eus](mailto:hezkontza@ekogunea.eus)) eta edozein zalantza argitzen saiatuko gara gure biologari taldearen laguntzaz.